

Lehen etxebizitza eskuratzeko premiak

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren (EB) txostena, EAEko etxebizitza premien eta eskariaren diagnostikoa egiteko.

2015ean, EAEko 104.176 herritarrek adierazi dute lehen etxebizitza eskuratzeko premia dutela. Horietatik % 70ek diru-sarreraren bat du. Gainerakoek, 31.340ek, ez dute premia horri aurre egiteko diru-sarrera nahikorik.

[Txostenerako sarbidea](#)

Lehen etxebizitza eskuratzeko premia dutela adierazi duten herritarren kopuruak gora egin du 2015ean

2015ean, guztira 72.836 lagunek eskuratu behar dute lehen etxebizitza eta emantzipatzeko diru-sarrera nahikoak dituzte. Premia hori dutela adierazi duten pertsonen kopurua handitu den lehen urtea da, 2009az geroztik, eta hala erakutsi dute datuek: atzeraldi ekonomikoan zehar, etxebizitza-premiak etengabe egin du behera: 2009an 125.514 lagun zenbatu ziren eta 2013an 65.346 lagun.

Eskatzailearen profila: 25 eta 34 urte bitarteko gazteak dira lehen etxebizitza eskatzen duen kolektibo nagusia

Lehen etxebizitza eskatzen duten gizonen kopurua handiagoa da emakumeena baino.

Izan ere, 2015 eta 2013 bitartean, etxebizitza-premia handitu izanaren arrazoiak lehen baino gizon gehiagok premia hori adieraztea izan da (guztien % 57,5 2015ean eta % 51,4 2013an).

Datu horrekin bat, 2015ean behera egin du lehen etxebizitza eskatu eta hori ordaintzeko diru-sarrera nahikoak dituzten emakumeen kopuruak: % 42,5 2015ean eta % 48,5 2013an.

Lehen etxebizitza eskatzen duen kolektibo nagusia 25 eta 34 urte bitarteko gazteena da (% 68,2). 35 eta 44 urte bitarteko herritarren artean, berriz, eskaria 2013ko % 13,8tik 2015eko % 19,8ra handitu da. Azpimarratzekoa da eskatzaile gehienak prestakuntzarik handieneko pertsonak direla: unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak guztizkoaren % 44,9 dira.

Etxebizitza-eskariaren estimazioa

Lehen etxebizitza eskuratzeko eskariaren igoera % 7koa izan da 2013 eta 2015 bitartean.

Lurralde historikoaren arabera: Arabak etxebizitza-eskaeraren igoera nabaria izan du eta guztira 8.362 etxebizitza eskatzen dira bertan, 2013an baino % 25,4 gehiago. Bizkaian, etxebizitza-eskariaren gorakada % 16,7koa izan da: 2013ko 29.945etatik 2015eko 34.949etara. Eta Gipuzkoan eskaria 21.000 bat etxebizitzakoa da.

Arrazoiak: Eskatzaileen % 73,8k familiaratik emantzipatzeko eskatzen du lehen etxebizitza, eta % 24,0k ezkontzeko edo bikotean bizitzeko.

Alokatu ala erosi? 2015ean, etxebizitza-eskarien % 52,2k alokairua aukeratu du (% 38,7 2013an), eta % 26,5k jarraitzen du erosketaren alde egiten (% 36,7 2013an).

Etxebizitza eskuratzeko zailtasunik handienak dituzten kolektiboak

Diru-sarrerarik ez duten 31.340 lagunek lehen etxebizitza eskuratu beharra dutela adierazi dute. Haietatik % 56 gizonezkoa da eta % 44 emakumezkoa. Eta haietatik % 33k unibertsitate-ikasketak ditu eta % 22k lehen mailako ikasketak.

Metodologia: EBk egindako txostena, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Premiei eta Eskariari buruzko Estatistikan eta Etxebide - Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzaren datuetan oinarriturik.

Beste iturri batzuk: Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten kolektiboei laguntzeko programak bultzatzen dituzten udal-arduradunei egindako elkarrizketak.